

FITXA: 231 - GIPUZKOA - Gipuzkoako udalek haur, nerabe eta gazteentzako planak eta jarduerak garatzeko dirulaguntzen 2026ko deialdia (D lerroa).

Nori zuzendua:

Ondoren aipatzen diren baldintza guztiak betetzen dituzten Gipuzkoako udal guztiak izango dute dirulaguntza hauek lortzeko aukera:

- Gipuzkoako Lurralde Historikoko Haur eta Gazteen Sustapenerako Erakundearteko Sareari, Gaztematikari, atxikita egotea edo atxekimendu agiria aurkeztea eskaerarekin batera.
- Arduradun teknikoa eta/edo politikoa izatea, Haurrak eta/ edo Gazteak Sustatzeko arloan berariazko eskumen eta/edo eskuordetza duena.
- Behar diren lan bilerak egitea Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria Zuzendaritza Nagusiaren aholkularitza zerbitzuarekin.
- Urtean zehar egingo diren hiru foro teknikoetan parte hartzea, ordezkari baten bitartez.
- «Gaztesare» intranetean jasotako bere udalerriri buruzko datuak sartzeta eta eguneratuta edukitzea.
- Beren politiken garapenean haur, nerabe eta gazteen parte hartze egonkorra txertatzea.
- Haur, nerabe eta gazteen aukera berdintasuna bermatzea; horretarako, zeharka landuko dira generoen arteko berdintasuna, euskararen sustapena eta gizarte inklusioa.

Deialdia: GAO - Gipuzkoako Aldizkari **Deialdiaren data:** 2026/05/04
Ofiziala

Sarbide-esteka:

<https://egoitza.gipuzkoa.eus/eu/hasiera>

Erreferentziazko araudia: 2026ko apirilaren 21ko Erabakia -
<https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/05/04/c2602803.pdf>

Eragin eremuak: Hezkuntza, Gazteria, Kultura eta Kirolak

Zenbatekoa: 360.000,00 €

Aurkezteko lehen eguna: 2026/05/05

Aurkezteko azken eguna: 2026/06/05

Aurrerakina: Ez da zehaztu

Aurrerakinaren gehieneko %a: Ez da zehaztu

Gehieneko zenbatekoa: Aldakorra
jarduketa bakoitzerako.

Gutxieneko zenbatekoa: Ez da zehaztu.

Tramitazioa: Norgehiagoka.

Laburpena

Gipuzkoako udalek haur, nerabe eta gazteentzako planak eta jarduerak garatzeko laguntzen 2026ko deialdia (D lerroa).

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

- a) Bakarrik edo haur eta/edo gazteen sustapenerako beste unitate batzuekin lankidetzan gidatutako eta, Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat estrategikoak eta erreferentziazkoak diren proiektuak egitea, haien garrantzia, berezitasuna, dimentsioa, berritasuna edo erreplikagarritasuna (proiektu bat udalerrri batean garatu eta sistematizatu ondoren, hura etorkizunean beste udalerrri batzuetan ezarri ahal izatea) aintzat hartuta.
- b) Haur eta gazteen sustapenerako programa orokorrak kudeatu edo garatzeko hainbat urtetarako edo urtez urteko planak egitea, Gaztematikaren ildo estrategikoak toki mailan ezartzeko.

Jarduera-ildoak

- a) Bakarrik edo haur eta/edo gazteen sustapenerako beste unitate batzuekin lankidetzan gidatutako eta, Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat estrategikoak eta erreferentziazkoak diren proiektuak egitea, haien garrantzia, berezitasuna, dimentsioa, berritasuna edo erreplikagarritasuna (proiektu bat udalerrri batean garatu eta sistematizatu ondoren, hura etorkizunean beste udalerrri batzuetan ezarri ahal izatea) aintzat hartuta.

Proiektu horientzako, erreferentzia gisa, Gipuzkoako Foru Aldundiaren interes arloak hauek dira:

- Gazteen ludopatiaren inguruko prebentzio eta sentsibilizazio programak.
 - Hezkuntza afektibo-sexualaren inguruko hezkuntza programak.
 - Kultura, identitatea eta teknologia digitalen erabilera egokia bultzatzea.
 - Gaueko aisialdiari edo jaiari lotutako ohituren inguruan arriskuak kudeatzea.
 - Gazte kulturak sustatzeko proiektu espezifikoak.
 - Gazte Zerbitzuen sorkuntzarako eta/edo garapenerako proiektuak.
 - Gazteen emantzipazioko politikak bultzatzeko proiektuak garatzea.
 - 1.000 biztanle baino gutxiagoko zenbait udalerriren arteko lankidetzak ekarriko duen proiektu bat egitea.
- b) Haur eta gazteen sustapenerako programa orokorrak kudeatu edo garatzeko hainbat urtetarako edo urtez urteko planak egitea, Gaztematikaren ildo estrategikoak toki mailan

ezartzeko.

b.1) Udalaren Haur eta Gazteen Sustapen arloa garatzeko hiru urteko plan bat egitea, sustapeneko jarduketak eta zerbitzuak diseinatuz eta martxan jarritz.

b.2) Udalaren Haur eta Gazteen Sustapen arloa garatzeko urtez urteko kudeaketa plan bat egitea, helburu hauek izango dituena:

— Haurrek, nerabeek eta gazteek udalerrian parte hartzeko egiturak sortzea, zerbitzuetatik abiatuta.

— Haurtxokoak eta gaztelekuak hobetzeko proiektuak garatzea, Gaztematikako haur edo gazteen sustapen zerbitzuen estandar teknikoetara egokitzeko prozesuak martxan jarritz.

— Europan zehar mugikortasun proiektuak garatzea.

— Udaleko beste arlo batzuekin lan koordinatu eta zeharkakoa egitea ahalbidetuko duten jarduketak garatzea.

— Udalerrian gazteentzako zerbitzu bat ezartzeko proposamen bat zehazten lagunduko duten jarduketak garatzea.

— Sustapen arloko antolaketako, plangintzako eta kudeaketako egiturak hobetzea.

b.3) Sustapen zerbitzurik ez duten 1.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan haur, nerabe eta gazteen sustapenerako programa orokor bat egitea, programa hobetze aldera talde aholkularitzako bileretan parte hartzeko konpromisoaz.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak

Ez da zehaztu

Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntza osoa aldi bakarrean ordainduko da, gauzatutako jardueren justifikazio kontua aurkeztu ondoren. Justifikazio hori, 2026ko azaroaren 15era arte aurkeztu ahal izango da.